

Euskararen eguna 2012ko ekitaldiak

Abenduak 1, larunbata

Hitz gurutzatuen binakako lehiaketak

Partaideak eta kategoriak

Lehiaketak bikoteka jokatu dira eta bertan parte hartu ahal izango dute Bergaran bizi edota ikasten ari diren guztiek.

Bi kategorია bereiziko dira:

- A kategoría. 12-16 urte bitartekoak. Hemen sartuko dira 2012an adin horiek betetzen dituztenak ere.
- B kategoría. 17 urtekoak edo zaharragoak. Kategoría honetan sartuko dira 2012an 17 urte betetzen dituztenak ere.

Kategoría desberdineko kidez osatutako bikotekak ere onartuko dira eta horien kasuan, partaide zaharrenaren kategoriakoak direla ulertuko da.

Izen-ematea

Izena emateko azkeneko eguna 2012ko azaroaren 28a izango da. Horretarako www.bergarakoeuskara.net webguneko inprimakia (<http://www.bergarakoeuskara.net/euskararen-eguna-hitz-gurutzatuak>) erabiltzea gomendatzen da. Arazoren bat izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuan e-postaz edo telefonoz ere egin liteke:

Telefonoa: 943779166

e-posta: euskara@bergara.net

Izena ematean datu hauek eman beharko dira:

Partaide bakoitzaren izen-deiturak eta adina:

Partaide 1:..... Adina:.....

Partaide 2:..... Adina:.....

Harremanetarako helbidea:.....

Tel.:..... Harremanetarako e-posta

Sariak

Sari guztiak Bedelkar merkatarien elkarteko dendetan erosteko bonoak izango dira.

A kategoria:

- Lehenengoak: 70 euroko bonoa.
- Bigarrenak: 60 euroko bonoa.
- Hirugarrenak: 50 euroko bonoa.
- Laugarrenak: 40 euroko bonoa.

B kategoria:

- Lehenengoak: 100 euroko bonoa.
- Bigarrenak: 80 euroko bonoa.
- Hirugarrenak: 60 euroko bonoa.
- Laugarrenak: 50 euroko bonoa.

Partehartzaileen artean zenbait kultur produktu ere zozkatuko dira.

Lehiaketa

2012ko abenduaren 1eko goizeko 11etarako bilduko dira lehiakide guztiak Bergarako Udaletxe aurreko plazan eta goizeko 11:30etan hasiko da saioa. Ez da hiztegi elektronikorik, ez eta ordenagailurik onartuko, bai ordea hiztegi-liburuak.

Bi aldi (sailkapena eta finala) izango dituzte lehiaketek eta honela banatuko dira ordutegian:

11.30 – 12.15 Sailkapena

13.00 – 13.45 Finala

* Partaide kopuruaren arabera, moldaketak egin ahal izango dira antolaketa honetan.

Sailkapena

Kanporaketa izaerakoa izango da. A kategoriakoek 10 x 10 lauki dituen hitz gezidunen ariketa egingo dute eta B kategoriakoek 12 x 12 lauki dituen hitz gurutzatua. Horretarako 45 minutuko denbora izango dute.

Proba honetan aurreneko lau postuetan gertaturiko lehiakideak sailkatuko dira finalerako. Jarritako denboran akasdun lauki gutxien dutenak igaroko dira finalera. Akats kopuruan berdinketa balego, denbora hartuko da kontuan.

Finala

Agerian eta jendaurrean jokatuko dituzte finalak, hartara iritsi diren launa lehiakideek. Ez dira mahaian ariko, zutik jarritako paneletan baizik. Edonola ere, panelok bata bestearena ez ikusteko moduan kokatuko dira. Inguruan ibili ahal izango da publikoa panelez panel, finalak eskatzen duen isiltasunari begirune eginez. A kategoriako lehiakideek 11 x 11 lauki dituen hitz gurutzatu taula beteko dute eta B kategoriakoek 12 x 15 lauki dituen. Bien kasuan, lana egiteko denbora 45 minutukoa izango da. Kasu honetan ere akasdun lauki gutxien dutenak izango dira irabazle eta akats kopuruan berdinketarik balego, denbora hartuko da kontuan.

Epaimahaia

Antolatzaileek txapelketako epaimahai bat izendatuko dute eta epaimahai horrek erabakiko ditu txapelketan zehar suerta litezkeen gorabeherak.

ANTOLATZAILEA: Bergarako Udala eta Jardun elkarteak.

LAGUNTZAILEA: LUMA aldizkaria.